

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Amodio gutunak
oinordetzan

Lydia Flem

ALBERDANIA

216 orrialde

15 euro

Denboran atzera
egiteko gutunak

Nola bustu nuen gurasoen etxea liburu hunkigarriarekin eman zuen ezagutzera Alberdania argitaletxeak euskaraz Lydia Flem psikoanalista eta idazle frantziarra. Egile beraren *Izua* plazaratu zuen gero, eta oraingo *Amodio gutunak oinordetzan* honekin gurasoak galdu ondoren idazleak nahigabeari nola erantzun dion jakingo du irakurleak. Ireki gabe etxeratu zituen kartoizko kutxetan, guraso izateko asmorik oraindik ez zutenean aitak eta amak elkarri trukaturako maitasun gutunak zeuden. Hiru urte eskutitzetan bilduta, 1946an elkar ezagutu zutenetik, 1949ko abenduaren

lehenean ezkondu ziren arte. Eskutitz bidez elkarri adierazi zioten maitasuna esku artean, zer egin ezin asmatu-rik geratuko da alaba. ■

Filosofia. Batxilergoko
I. maila

Batzuen artean

GAIK

378 orrialde

Filosofiak zientziaz eta
teknologiaz duen ikuspuntua

Egungo gizakia zientzia eta teknologia berrien mende dagoela-eta, filosofiak erantzun egin behar duela uste dute liburu honen egileek. Aitor Anduagak, Martin Berasainek, Fernando Berrizbeitiak, Jokin Cabellok, Alberto Lizeagak, Juan Ramón Makusok, Ignazio Narbaizak, Edurne Ortegak eta Ander Sarriak osatu dute Batxilergoko aurreneko mailako ikasleei zuzendutako lan hau. Ukitzen diren gaien artean honakoak daude: jakintza filosofikoa, gizakia –hainbat gai kontuan hartuz, besteak beste natura, kultura, arrazoia, historia eta kultura aniztasuna–, arrazoitzea eta argudiatzea ulertzeko moduak orain eta iraganen, giza ezagutza, giza ekintza –askatasunean, balio moraletan, zientzia eta teknikan–, eta gizabanakoa, demokrazia eta utopia. ■

Mendi gailurretik
euskal ferietara

Mendia, kultura, natura eta bidaiak lantzen ditu Sua argitaletxeak plazaratzen duen *Euskal Herria* aldizkariak. Azkeneko zenbakian, oinez edo kotxez egin daitezkeen hamaika ibilaldi proposatu dituzte. Anboto mendira egin daitezkeen igoeretatik hasiz, Araban barrena egiteko ihesaldiak, Nafarroako Gares herrira egin dezakegun bisita eta izerdi puska bat botaz euskal Pirinioak ezagutzeko ditugun aukerak eskaintzen zaizkigu. Eta irakurlea kalekume petoaren ohituren jarraitzaile ez bada ere, non gozatu izango da aldizkariari esker, Euskal Herrian feriak ez baitira falta. Horieta-ko bi nagusienen nondik norakoak eskaintzen dira aldizkarian. Edorta Jimenezek eman ditu Gernikako ferien gainean jakin beharreko guztiak eta Joxe Mari Iturraldek berriz, Ordiziakoei buruzkoak. ■

Euskal Herria
Batzuen artean

SUA

132 orrialde

5,30 euro

Oscar Wilde
kartzelatik


Aitor Aranek euskaratu du Txalaparta argitaletxearentzat Oscar Wilderen *De Profundis* liburua. Idazle batek har dezakeen lanik gogorrenetakoa da obra hau. Oscar Wilde espetxean zegoen idazteari ekin zionean, besteren artean maite zuen pertsonak hala nahi izan zuelako. Hari idatzi zion *De Profundis* gutun luze eta gogoangarria. “Biziaren Plazera eta Artearen Plazera ikasteko etorri zinen nigana” adierazi zion Wildek, erantzunik espero ez zuen gutunaren amaieran. “Menturaz, askoz zoragarriagoa den zerbait zuri irakasteko hautatua naiz. Minaren esanahia eta bere edertasuna”. 1895ean Queensberryko markesak salaketa jarri zuen Oscar Wilderen kontra haren semearekin jokabide inmorala izan zuela esanaz, eta horren ondorioz igaro behar izan zituen bi urte espetxean idazleak. ■

De profundis
Oscar Wilde

TXALAPARTA

218 orrialde

17 euro



Haur besoetakoa

Jon Mirande

EREIN

124 orrialde

6 euro

Mirande, orain poltsiko edizioan

Erein argitaletxeak berriro plazaratu du *Haur besoetakoa*, poltsiko sailean. 1959an idatzi zuen Jon Mirandek hainbeste irain eta laido ekarri zizkion nobela hau. 1970 arte ezin izan zuen argitaratu, ez nobela eskasa delako, ukitzen duen gaiarengatik baizik: adineko gizon baten eta hamar-hamaika urteko neskatxa baten arteko amodio istorioa. Gabriel Arestik Lur argitaletxeak kaleratu zuen unean eskaintako hitzaurrean zioenari jarraituz, buruko biloak luzatu eta belauak larritu egiten dituen gaia da eta sekulakoak entzun behar izan

zituen Mirandek. Halere, Arestirekin batera zera adierazi dezakegu: oso ongi idatzita dago. ■

Krokak koloreekin egiten dituen gauza liluragarriak

Krokoren abenturak kontatzen dituen bilduma etxeko txikienei zuzendua dago. Oraingoan, liburutxoak dituen ezusteko atseginen atal den leiho baten atzean, Kroko margotzen antzeman daiteke. Zer ordea? Kartoi lodi batez eginiko orria pasa eta, hara! Lore arrosa bat, polit-polita, margotu duela ikusi dezakegu. Ondorengo orrialdeetan, kolore ezberdinetakoa arkatzak erabiltzen ditu Krokak. Batean, horia: banana gozoa margotzen ari baita! Eta hurrengoan, urdina, belaontzi urdin bat margotzen duela. ■

Arkatz magikoak

Jo Lodge

IBAIZABAL

120 orrialde / 6,80 euro



JOXE AZURMENDI

«Liburu honek burla askoren erantzuna izan nahi luke»

Zer da, berez, *volksgeist* kontzeptua?

Berez ez da herri baten mentalitatea, izatera, edo nortasuna baino; herri baten kultura, jakinduria. Izatez, kasik gauza bera da folklorea. Herri bakoitzak bere jakinduria edo folklorea arabera sortzen ditu kantak, dantzak, jendarteko harremnak, legeak, artea, mitologia... dena. *Volksgeist* hitza Hegel-ek (1770-1831) asmatua da, esan ohi denez, gazterik irakurritako Montesquieu alemanera itzuli beharrak horrela konposarazita. Gogoratu behar da, Herder, Hegel, Savigny, denak Montesquieuren irakurle artatsuak izan direla eta euren “herri gogoaren edo izpirituaren” kontzeptuetan haren testuetatik abiatu direla.

Zer uzten du agerian zure liburu honek?

Europar pentsamenduaren historia bat bakarria dela, “teologo” politikoei gustuko duten dikotomisismo manikeo hori gabe –alegia, Ilustrazioa versus Erromantizismoa, kosmopolitismoa versus etnizismoa, Frantzia versus Alemania–. Lanean, berrehun bat urteko garapen historikoa dago –ilustrazioa, erromantizismoa, filosofia idealista, positibismoa, bitalismoa, nazismoa–; eta bestetik, herri gogo eta nazioa; herri gogo monarkia absolutoaren kritiko gisa; herri gogo eta Estatu nazionala; herri gogo eta arraza... Eta baita ere Erromantizismoa eta literatura nordikoa... Horrelako gai nagusien inguruan Europako pentsamendu modernoaren historia errepasatzen da XVIII. mendetik XX. mendera arte

Polemika asmoz idatzitako liburua al da hau?

Ez, liburua ez da polemikoa. Baina polemika eta burla askoren erantzuna izan nahi luke.



egileari galdezka

Volksgeist edo Herri gogo, Ilustraziotik Nazismora

Joxe Azurmendi EHUKo Filosofia Modernoko katedradunaren *Volksgeist*, *Herri gogo*.

Ilustraziotik Nazismora lana trilogia baten parte da, *Humboldt: bizkuntza eta pentsamendua*-rekin, eta joan den urtean argitaratu zen *Espaniaren arima* obrarekin batera. Zerk eraman du Joxe Azurmendi hainbeste ahalegin eta ordu eskaini behar izan dizkion lan hau egitera? Politikan bizi dugun giro polemikoak –egunero kultura edo kultura eza zeharo nahasten dituen–. Azurmendiren esanetan, estatuen “teologoei” diote abertzaleena pentsamendu esentzialista dela, herriaren arima batean, gogo batean edo esentzia batean sinesten duena; eta pentsamendu hori erromantikoa, irrazionalista eta arrazista ere badela, Herder edo Humboldt bezalako alemaniar pentsalarien tradizioa. *Volksgeist* liburuan gai



Volksgeist, Herri gogo

Joxe Azurmendi

ELKAR

333 orrialde

24 euro

horiek denak errepasatu ditu zegamarrak, herri gogo kontzeptua argitzea; erromantizismotik zer duen eta zer ez; irrazionalismoak herri gogoarekin zerikusirik ez duela esateko; gainera, arrazismoaren historia filosofikoa eta politikoa ere berrikusten du, Frantzia hasi eta Alemania jarraitzeko, *volksgeist* kontzeptuak Frantzia hasi eta Alemania jarraipena izan zuen bezalaxe. ■